

Aritz Egea Caceres-ek bere tesia irakurri du

2012/12/11

Abenduaren 5an, goizeko 11:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Aritz Egea Caceres Doktoregaiak bere doktoretesia aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitatearen areto nagusian. Tesiaren izenburua Design Methodology For Permanent Magnet Axial Flux Machines eta tesi zuzendariak: Goi Eskola Politeknikoko Gaizka Almandoz, Gaizka Ugalde. Gainera, Europako aipamena lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Ricardo Bosch Tous (Universidad Politécnica de Catalunya (UPC)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Arwyn Sean Thomas (Sheffield-Siemens Wind Power Research Centre) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Miguel Martínez de Iturralde Maiza (CEIT, Universidad de Navarra) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Ana Julia Escalada Aguado (ORONA) Dk. And.
- Idazkaria: Fco. Javier Poza Lobo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi honen helburu nagusia fluxu axialeko makinak diseinatzeko metodologia oso bat proposatzea izan da. Hasteko aplikazioaren betebeharrak definitzen dira makinaren ezaugarriak zehazteko. Ondoren makinaren diseinua burutzen da, erreminta analitikoak zein numerikoak erabiliz. Prozesu honen baliagarritasuna frogatzeko igogailu aplikazio batera bideratutako prototipo experimental bat ere eraiki da.



Aritz Egea Caceres-en Tesia